

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

334

Urriak 1, 2018

**“Jolasten hasi nintze-
nean ez nuen espero
Realera iristea”**

LEIRE BAÑOS
Realeko jokalaria

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Euskaraldia
- 4-5** Eraiki dantza taldea
- 6** Ribera programa
- 8** Kirolak: Txingudi Korrika
- 9** Kirolak: Leire Bañosi elkarrizketa
- 10** Caser
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Bertsoak / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: MotoStudent Lehiaketa
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda

Argazkia: Estudio Gover



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxunborra hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



Ricardo T. Berodia Gordejuela

Ikertzailea. Irunen jaio zen 1951 urtean. Bere lehen ikasketak La Salle ikastetxean egin zituen eta jarraian Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalen ikasten jarraitu zuen. Mendiarekiko zaletasun handia mantendu du, nahiz eta Naranjo de Bulneseen oinarritzko materialarekin egindako eskalada saioak urruti gelditzen zaizkion arren.

Literaturaren munduan murgildu zen han-hemenka lan laburrak publikatuz. Aiako Harrien inguruan erromatar garaiko meatzeak topatzeko elkarlanean lan egiten du Felix Ugarte Elkartearekin, lur-azpiko eremua ikertu eta babesera dedikatutako elkartearekin. Luis de Uranzu Kultur Taldearen fundatzaileetako bat da. Ikerketa elkarte honek "El ferrocarril del Bidasoa (1916-1956)" liburua publikatu zuen 2007 urtean. Zazpi kapituluetan zehar era arin batean Bidasoa eskualdean meatzaritzaren iragana, meatzaritzako garraioa eta Bidasoako trenbidearen inguruko eraikuntzak eta eragin sozio-ekonomikoak nolakoak izan ziren azaltzen du.



Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

REF:37974

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

Publizitatea:

Amaia Terrazas
(amaia@irunero.eus)
Ion Otxoa
(ion@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



11 egunetako ariketa Irunen euskararen erabilera bultzatzeko

Irailaren 20ean ireki zen Euskaraldian parte-hartzeko izen-emate epea

Hamaika egunetan zehar Irundarren hizkuntza ohiturak astinduko ditu Euskaraldiak. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra parte hartuko du Irungo hiriak Euskaraldia izeneko egitasmoan. Ariketa sozial horren helburua hiritarren artean euskararen erabilera hobetzea izango da.

Euskaraldia ekimenean Euskal Herri osoko 350 hiri eta herri parte hartuko dute. Irunen kasuan, Udalaz gain, hiriko gizarte eragile ezberdinetako ordezkariak lanean ari dira hamaika egunetako iraupena izango duen ekimena antolatuz. Nestor Leunda, Aitzondo Euskara Taldeko kideak azaldu du, "Irungo Euskaraldia kalitatezkoa izatea gustatuko litzaiguke".

Mónica Martínez Euskara Ordezkariek ekimenarekiko babesa azaldu du, "pertsona bakoitzak, bere ahalmenen arabera lan egin beharko du, guztiok batera euskararen erabilpena bultzatzeko". Ildo beretik, Euskara Ordezkariek gaineratu du, proiektua bere fruituak eman ditzan esfortzua egunez egun egin behar dela, ez soilik ariketa sozialak iraungo duen 11 egunetan zehar.

"Pertsona bakoitzak, bere ahalmenen arabera lan egin beharko du, guztiok batera euskararen erabilpena bultzatzeko"

Mónica Martínez,
Irungo Euskara Ordezkarria

Izen-emate epea irailaren 20ean hasi zen eta alde zurretik izena ematea ezinbestekoa izango da Euskaraldian parte hartu ahal izateko. Bi eratara egin daiteke izen-ematea. Internet bidez, www.euskaraldia.eus webgunean.



aren bitartez. Bestetik, izen ematea paperean egin nahi bada, hiriko hiru puntutan banatuko diren izen-emate orria bete eta HAZ bulegoan kokatuko den kutxan entregatu beharko da.

"Irungo Euskaraldia kalitatezkoa izatea gustatuko litzaiguke"

Nestor Leunda, Aitzondo
Euskara Taldeko kidea

Proiektu bat, bi jarrera

Proiektu honen bitartez hizkuntza inertiak astindu eta hirian uste baino gehiagotan euskaraz komunikatzea posible dela erakutsi nahi da. Euskaraldiak iraungo duen

11 egunetan zehar, 16 urtetik gorako irundarrek proiektu honen aurrean hartuko duten rola aukeratu beharko dute. Bi rol izango dira aukeran: ahobizi eta belarriprest.

Ahobizi rola aukeratzen dutenek, euskara ulertzen duen edonori euskaraz hitz egiten saiatuko dira, nahiz eta erantzuna gazteleraz jaso. Era berean, pertsona ezezagunekin elkarrizketa bat hasi behar dutenean, lehen hitzak euskaraz egingo ditu ere. Bestetik, belarriprest rola onartzen dutenek, euskaraz hitz egin diezaieten adierazi nahiko dute jarrera horren bitartez, nahiz eta pertsonak euskaraz zein gazteleraz erantzuteko aukera izango duen.

Ahobizi zein belarriprest rola hautatuko duten parte-hartzaileek txapa bat eramango dute soinean, haien rola identifikatzea erraza izan dadin. Ariketa ohiko harreman sarearen barnean errepikatu beharko dute parte-hartzaileek ekimenak iraungo duen 11 egunetan zehar.



AUNTXA TRIKITIXA ESKOLA
TRIKITIXA ETA PANDEROA

5 urtetatik aurrerako haur eta helduentzat zuzenduta
Irakasteko metodo desberdinak:
Zenbakiz osatutakoa, aurrez-aurre, solfeo

Aldabe Mendio Kalea 31, Irun
943 61 88 39 - 615790510

www.auntxatrikitieskola.com
info@auntxatrikitieskola.com

40 urteetako dantza amaigabea

Eraiki dantza taldeak 40 urte bete ditu

2018 urtean 40 urte bete dira Eraiki Dantza Taldea sortu zenetik. 40 urte horietako garai ezberdinetan Eraikiren parte izan diren adin guztietako dantzariak elkartzeko asmoarekin, irailaren 22an ekintza ugari antolatu ziren taldearen urteurrena era berezian ospatzeko.

Ekitaldiak irailaren 21ean, ostiralean, abiatu ziren Behobiako parrokiaren taldeko hildakoen oroitzapenerako ospatu zen mezarekin. Bidasoaldeko Abesbatzak parte hartu zuen mezaren ospakizuneari eta, meza bukatutakoan, dantzariak agurra dantzatu zuten.

Urteurrenaren ospakizunerako antolatutako ekintza nagusiak irailaren 22an, larunbatean, aurrera eramane ziren. Goizeko 11:00etan bildu ziren dantzariak taldearen lokalaren alboko plazatxoan. Hamaitakoa egin ostean, Elizatik hasita auzoko kaleak kalejiran zeharkatu zituzten. Ibilbidean dantzarako bi etenaldi egin zituzten, plaza berrian eta lokalaren alboko plazatxoan. Gainera, egun osoan zehar, Behobia Futbol Taldeko kideen laguntzari esker, plazatxoan txosna martxan egon zen, egun eguzkitsuan leher egindako dantzarien egarria asetzeko.

Dantza saioen ostean, indarra hartzeko, bazkari eder bat ospatu zen plazatxoan kokaturiko karpa handi batean. Antolakuntzatik bazkarian 200 pertsona inguruk parte hartu zutela kalkulatu dute. Bazkariaren ostean festak aurrera jarraitu zuten, Jaiki Hadi erromeria taldearen emanaldiarekin. Egunduan zehar taldeko kideak diren dantzariak, dantzari ohi, lagun eta senideekin dantzak eta oroitzapenak partekatze aukera izan zuten.

Ospakizun egunaren ostean, Eraikik taldea aurrera eramateko lanean jarraitzen du. Irailaren 14tik 16ra dantzari helduen taldeak Veronan ospatutako Tocati jaialdian parte hartu zuen, euskal dantzen esentzia Italian ezagutzera emateko. Gainera, irailaren 21ean kurtso berriari hasiera eman zioten eta ikasturte berria prestatzeko lanean hasi dira jada.

Urte luzeetako lana

Eraiki taldea 1978 urtean sortu zen Behobia auzoan kokatutako Bentoenea base-rrian. 8 eta 12 urte bitarteko gazteak izan ziren taldeko lehen dantzariak. Entseguak baserriaren sotoan egiten ziren eta baserriaren ganbaran, berriz, dantzarako erabiltzen zituzten jantziak gordetzen zituzten. Urteak pasa ahala, dantzari kopuruak gora egin zuen eta taldeak base-rria utzi behar izan zuen. Ordutik, Behobiako eskola zaharreko lokaletan egungo taldekideek lanean jarraitzen dute, etorkizunean Eraikik osasun onean urteurrenak ospatzen jarraitu dezan.





Maialen Alonso eta Itsaso Aranburu, taldeko monitoreak:

Jende asko animatu da goizeko dantzetan parte hartzera eta adin ezberdinetako dantzariak elkarrekin dantzan ikusi ahal izan ditugu. Gaurkoa egun oso berezia da momenturen batean Eraikiren parte izan diren pertsona guztientzat. Jendea dantzatzeko gogo handiekin etorri da eta, dantzei esker, iraganeko adiskidetasunak eta elkarrekin bizitako momentuak gogora ekartzeko aukera izan dute.



Iker Manterola, taldeko dantzari ohia:

Harrituta gelditu naiz Eraikiren 40 urteak ospatzeko antolatu den guztia ikusita. Aspaldian ikusten ez nituen taldekideekin elkartzeko aukera izan dut. Eguna handia iritsi aurretik, dantzak gogoratzeko egin ditugun entseguak oso politak izan dira. Lagunartean dantzak gogoratzear gain, taldean bizitako momentu bereziak gogoratzeko aukera izan dugu.



Garoa Igiñiz, taldeko dantzari ohia:

Lesio bat dela medio denbora asko pasa dut dantzan gabe, baina, dantzatzea asko gustatzen zaidanez, oso polita izan da gaurko egunean dantzatzea atsegin duten hainbeste pertsonekin elkartzea. Egunean zehar ezagutzen ez nituen aurpegi berri askorekin topatu naiz eta, horrek esan nahi du, 40 urte hauetan Eraiki taldeetik jende asko pasatu dela eta hori ikusteak asko pozten nau. Gainera, bazkarian aspaldian ikusi gabeko jendearekin bazkaltzeko aukera izan dut.



Koldo Ribera, "40 urte, hamaika dantza" ekitaldiko antolatzailea:

Gaurko eguna gauza askoren erakuslea da aldi berean, baina, beste gauza batzuen artean, taldean garrantzitsua izan den jendea berriro elkartzeko aukera izan da. Urte guzti hauetan taldearengatik bere denbora librea sakrifikatu duen jendea egon da, baina, horri esker, adiskidetasun eta harreman politak sortu dira hemen. Gaur hori ospatzera etorri gara. Gainera, 40 urte bete ostean, taldeak etorkizuna duela ikusten da, beraz, gaur egun taldean lanean ari dinei babesa erakusten jarraitu behar dugu.



Iker Molina, taldeko dantzaria:

Gaurko egunerako antolatu dena oso polita dela iruditzen zait. Izan ere, gaurko egunean belaunaldi ezberdinak elkartzeko ideia oso aproposa dela uste dut, izan ere, taldea martxan jarri zutenek taldekide berrieekin dantzan disfrutatzeak aukera izan dutelako. Eguna dantzan hasi dugu, ahaztutako gauzak gogora ekarri eta egunean zehar hemen elkartu garenek oso ondo pasako dugula uste dut.

Neumáticos
txepetxa



**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



Ribera programaren hirugarren edizioa ospatu zen irailaren 22an



Irailaren 22an antolatu zen Ribera programaren hirugarren edizioa. Egun osoko jardunaldien programaren barnean, ekintza desberdinak garatu ziren Nazioarteko Zubiaren eta Osinbiribileko inguruan. Edizio berriak, aurreko urteetan programak finkatutako ildoak jarraitu du: Bidasoa ibaiaren eta mugaren kontzeptua arte garaikidearen ikuspuntutik lantzea.

Ribera programaren edizio berri honetan Ribera Beken emaitzak ezagutzera eman ziren, publikoari musika eta dantza erakustaldiez gozatzeko aukera eskaintzeaz gain. Egitaraua adin guztietako publikoari zuzenduriko ekintzez beterik egon zen, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00etara bitarte antolatutako erakustaldi eta erakusketa ezberdinekin.

Xabier Anunzibai artistak "Oroimenaren hormak" izeneko muralaren sorkuntzan lan egin zuen egunean zehar, saihebidetaren zubiko paretak apaintzeko. Hortaz gain, egun osorako argazki rally lehiaketa antolatu zen, bertaratutakoei, argazkien bitartez, Ribera ekimenaren bestelako ikuspuntuak biltzeko jolasa proposatuz. Urriko hilabetearen zehar, lehiaketan jasotako irudien bilduma ikusgai jarriko da Irungo CBA liburutegian.

Skate Parkaren alboko eremuan, Bitamine-Faktoriaren eskutik Hondartza Instalakuntza eta Ivan Gomez eta Iraitz Agirre Ribera Bekaren irabazleen "Faisaien uhartea, Historia kontatzeko moduak" erakusketaz disfrutatzen aukera izan zen egun osoan zehar. 11:00etatik 13:00etara Juncal Alfonsok eta Arantza Albisuk sortutako "Bidai

Kaera" izeneko aire zabaleko margo eta marrazki erakusketa ikusgai egon zen. 13:00etan Ekilore konpainiako Eneko Alcarazek "Sorginak Kanpora" dantza ikuskizuna eskaini zuen. 13:30etan Jaz Manouche taldearen kontzertua izan zen. Bidegorriaren inguruan, berriz, "Kontakizunak pedalkadaz pedalkada", bizikletaz kontatutako paseoa antolatu zen.

Ribera Bekak

Humanitateen eta artearen alorreko ikerketa-zientzien izaerako proiektuak garatzeko esparru iraunkorra sustatzea bilatzen da beka deialdi honen bitartez. Artista eta antropologo taldeek Bidasoa ibaiaren eta mugaz gaudiko eremuetan lan egiten dute. Ribera Bekaren 2018ko onuradunetako batzuk Mikel Huarte eta Heidi Otaduy izan dira "Irun, muga lurraldea" proiektuarekin. Dokumental baten bitartez, azken 25 urteetan eskualdeko harremanetan mugaren irekierak izan duen eragina islatu nahi izan dute, gazteek muga-eremuaren inguruan egun duten pertzepzioa bilduz.

Bestetik Ivan Gomez eta Iraitz Agirrek "Faisaien uhartea, Historia kontatzeko moduak" izeneko proiektua ere beste Ribera Beka batekin saritua da. Faisaien uhartearen inguruko proiektuaren argazki ugari ikusgai egon ziren irailaren 22an Skate Park eremuan. Izaera bereziko lurralde eremu honetan jazotako gertakari historikoak begirada kritiko aztertzen helburuarekin sortu zen proiektua da hau.



MATRIKULA
DOHAINIK

UDAN ERE,
ASTINDU GORPUTZA!!!

Multi-Gym, Pilates,
Sevillanak,
latindar erritmoak,
Yoga, haurrentzako
pilates ikastaroak eta
dantza garaikidea

Deitu 943 61 48 89
edo idatzi tatianas@euskalnet.net



ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM



20

ETXEBIZITZA

LASTER
ERAIKIKO DIRA
AUKERA
EZIN HOBEA



Irun erdi-erdian, anbulatorioaren eta Artaleku kiroldegiaren artean, Luis Mariano Plazaren ondoan.

3 LOGELAKO 20 ETXEBIZITZA KOSTU-PREZIOAN KOOPERATIBA-ERREGIMENEAN, garaje, trasteleku eta guztiz ekipatutako sukaldeekin.

Baxu eta atikoek terraza zabal-zabalak dituzte.

GESTIOA, INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



Plaza Luis Mariano, S/N • IRUN (Gipuzkoa)

663 904 680

www.artalekubizigunea.com

FINANTZIAZIOA:



Inmobiliaria Urme Txingudi Korrika: 20 urte muga lasterka zeharkatzen



Urriaren 6an, larunbatean, ospatuko da Inmobiliaria Urme Txingudi Korrika. Lasterketaren 20 edizioa izango da aurtengoa eta, aurreko edizio guztietan bezalaxe, Txingudi Badia osatzen duten hiru hirietatik igaroko da. Aurtengo edizioaren nobedade nagusia Txingudi Korrikan behin erabiltzeko dortsal txipak erabiliko direla da.

Azken zazpi urteetan bezala, Txingudi Korrikaren aurtengo ibilbidea ere 10 kilometrokoa izango da. Hendaiako Florida kaian kokatuko da lasterketaren abiapuntua eta, Irungo erdialdeko kaleak zeharkatu ostean, Hondarribiko Hondartza kiroldegia- ren kanpoaldeko atletismo pistetan egongo da helmuga.

Aurtengo nobedade nagusia lasterketan behin erabiltzeko dortsal txipak erabiliko direla da. Izen-emateak 13 euroko prezioa izango du aurten eta lasterketaren 20. edizioa ospatzeko kolore arrosa eta beltza aukeratu dira kamiseta apaintzeko. Izen-ematea probaren egunean bertan eginez gero, dortsalaren prezioa 18 eurokoa izango da.

Parte-hartzaileek bi bide izango dituzte aukeran lasterketan izena emateko. Internet bidez Kirolprobak webgunean eman ahalko da izena. Izen-ematea era presentzialean egin nahi bada, Mendibil Merkataritza Guneko LeireSport eta Hondarribiko Papykop dendetara edo Palmera Montero Eraikinean BATEk daukan bulegoan, 9:00etatik 14:00etara, hurbiltzeko aukera izango dute interesatuak. Korrikalarien poltsak urriaren 5ean, ostiralean, Dunboko egoitzan edo irteera puntuan lasterketaren egunean jasotzeko aukera egongo da.

Helmugara iristen diren lehen 10 emakume eta gizon, lehen Hendaiar, Hondarribiar eta Irundarrentzat, lehen 3 roller eta lehen 3 handbikentzat sariak egongo direla jakinarazi du lasterketaren antolakuntzak. Hortaz gain, lasterketan 4 erbi izango dira ibilbidean zehar 3'45,4', 4'30 eta 5'erritmoa jarraituko dutenak, helburu bat lortu nahi duten korrikalarietara gidatu laguntzeko. Hasiera puntura iristeko, 14:45etatik 15 minutuko tartearekin funtzionatuko den autobus zerbitzua edo itsasontzi zerbitzua erabili ahalko

dute probako parte-hartzaileek lasterketaren hasiera puntura iritsi ahal izateko.

Azken urteetako parte-hartzea

Azken urteetako datuak ikusita, 600-650 izen-emate lortzea espero da. 2015 urteko lasterketan lortu zen parte-hartzaile kopuru altuena, 793 korrikalarik parte hartu baitzuten proban. Ibon Muñoz Bidasoa Atletiko Taldeko ordezkariak azaldu duenez, orduetik, izen-emate kopurua murrizten joan da sektorea beherakadan eta saturaturik aurkitzen baita.

Txingudi Korrika Txikia

Larunbat goizean, berriz, Txingudi Korrika Txikia lasterketaren txanda izango da. Stadium Galaren alboko zelaian korri-

kalari txikientzat antolatzen den 4. edizioa izango da aurtengoa. Lasterketan urte bat eta 13 urte bitarteko korrikalarietara parte hartuko dute eta izen-ematea dohainik izango da.

Helburu lehiakorrik gabeko lasterketa izango da eta saria probaren amaieran parte-hartzaile guztientzako prestatuko den hamaiketako izango da. Gainera, proba hasi aurretik, Bidasoa Atletiko Taldeko entrenatzaileek kirola egin aurretik egin beharreko beroketa jarraibideak emango dizkiete parte-hartzaile gazteei.



LEIRE BAÑOS, Realeko futbol jokalaria:

“Partidu guztiek dute berezia den zerbait”



Argazkia: Estudio Gover

Leire Baños futbol jokalaria irundarra 11 urterekin hasi zen futboleko jolasten Irungo Dunboa-Eguzki taldean. Hiru urteren ostean, garai hartan sortutako Irun-Artia taldean jolastera pasa zen. 16 urterekin Oiartzun taldean jolasten hasi zen eta urte bat eman zuen bertan Realaren deia jaso zuen arte.

Nola erabaki zenuen zeure bizitza futbolera jolastera dedikatu nahi zenuela?

Jolasten hasi nintzenean ez nuen espero Realera iristea. Nire buruan sartzen ez zen arren, urteak aurrera egin ahala egindako ibilbidea ikusita, gauzak etortzen dira eta denborarekin helburuak lortu ditzakezula ikusten duzu.

Nolakoak izan dira aurre-denboraldiko prestaketa lanak?

Aurre-denboraldiko prestaketa lanak beti gogorak dira. Entrenamendu asko izan ditugu, baina, entrenamendu onak egin dira. Liga asteko gogo asko dauzkagu.

Orain arte lortutako emaitza positiboak liga on bat egiteko lagungarriak izango zaizkizuela uste duzu?

Bai, egia esan, orain arte lortutako 7 puntuek konfiantza handia ematen digute. Talde gaztea garen arren, orain ar-

teko partiduetan erakutsi dugu gauza onak egiteko gai garela.

Zer behar da denboraldi on bat egin ahal izateko?

Partiduetara intentsitatearekin ateratzea funtsezkoa da denboraldi on bat egin ahal izateko. Intentsitatea edukita jokia ondo ateratzea erraza da, hori asko entrenatzen baitugu. Intentsitatea partidu guztietan mantentzen saiatu behar gara.

“Realarekin bizitako momentu guztiak politak dira niretzat”

Denboraldi berrian, zein uste duzu direla taldearentzako aurkari indartsuenak?

Beti bezala, goiko postuetan dabilzan taldeak: Barça, Atletico Madril edo Athletic taldea bezalakoak. Egia esan, emakumezkoen futboleko maila igo da eta, ondorioz, ez dago partidu errazik.

Zein helburu daukazue denboraldi amaierari begira?

Gorago gelditzea da beti, ahal den neurrian, helburu nagusia. Nahiz eta talde gaztea izan, gora iritsi eta gauzak politak lortzeko aukera dauzkagula uste dut.

Zein izan da orain arte futboleko bizitako unerik bereziena?

Zaila da momentu bakarra aukeratzea. Realarekin bizitako momentu guztiak politak dira niretzat. Partidu guztiek dute berezia den zerbait. Espainiako Selekzioarekin jokatutako Europeoak oso bereziak izan dira, irabazi ez genituen arren, bi kasuetan finalera iristea lortu genuelako.

Emakume eta gizonezkoen futbolaren artean desberdintasunak ikusten dituzu?

Emakume eta gizonezkoen futbolaren artean aldeak dardela argi dago. Gu teknikoagoak gara eta haiek fisikoki gogorragoak dira. Hala ere, jendea gu ikustera etortzea oso garrantzitsua da, guk ere futboleko jolasten dakigula konturatzeko.



Irailak 21: Alzheimerren nazioarteko eguna



Irailaren 21ean ospatu zen Alzheimer gaixotasunaren nazioarteko eguna. Adineko pertsonengan ematen den dementzia mota arruntena da alzheimerra. Hain zuzen ere, Caser Residencialek Irun eta Hondarrribian dauzkan zentroetan egoiliarren %75ak inguru sufritzen duen gaixotasuna da. Anaka eta Betharrameko egoitzetako profesionalak gogor lan egiten dute egoiliarrengan gaixotasunaren efektuak gutxitzen saiatzeko.

Elaia Rodrigo, Caser Residencial Betharrameko animatzaileak, aktibitate ezberdinak antolatzen ditu gaixotasuna pairatzen duten egoiliarrei haien egunerokotasunean laguntzeko asmoz. Estimulazio kognitiboa bultzatzea da ariketa horien helburua. Animatzaileak, musika, literatura edo gastronomia bezalako gaiak ardatz bezala erabiltzen ditu, egoiliarrei galderak eginez, haien oroimenean galdurik dauden datuak eta oroitzapenak berreskuratzen saiatzeko. Orokorrean, errutina mantentzen laguntzen dieten ekintzak guztiak dira onuragarriak.

Egoiliarrek erosoago sentitu daitezten, gazteagoak ziren garaiko gaiak landu ohi dituzte, informazioa gogoratzeko errazagoa izan dadin eta gaiaren inguruan hitz egiten ahalik eta erosoan sentitu daitezten. Alzheimerren sufritzen duten pertsonen kasuan, profesionalak gaixoen aktibitate psikikoaren lanketan zentratzen badira ere, eskulanean bidez sentsibilitatea lantzea garrantzitsua da ere.

Alvaro Berroa Hondarrribiko egoitzako psikologoak azaldu du alzheimerra konponezina eta garapen progresiboa duen gaixotasuna dela. Ondorioz, adineko pertsonen artean era desberdinetako demenziaren bat pairatzea ohikoa denez, alzheimerra ezaugarri antzekoak dituzten gaixotasunekin landu ohi dela azaldu du zentroko psikologoak.

Egoiliarrek dinamizatzailearekin egiten dituzten aktibitatez gain, psikologoarekin gaixotasunaren garapena oztopatzeko bestelako ariketak ere egiten dituzte. Funtzio kognitiboak lantzeko memoria, lengoaia, kalkulua, arreta edo kontzentrazioarekin loturiko saio espezifikoak prestatzen ditu. Beti ere, zentroko psikologoak adierazi duenez, ariketen ostean erlaxazioa oso garrantzitsua da, egoiliarrek denbora eta espazioan orientaturik mantentzen saiatzeko.

Hortaz gain, Caser Residencial AFAGI elkartearekin elkarlanean lan egiten du, hitzaldiak eta alzheimerren duten egoiliarrentzat onuragarriak izan daitezkeen ekintzak koordinatzeko.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA




GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Eguzkitza - Gela egonkorra



Denborapasak

Gorputz atalak

B J Y M E Y X U G U S F R L C M M
 C U R F I U Y C G L M B E E U T K
 V M L A F N E E D T E O I P B Z C
 D P R A R Y G Y E K L U U O E D B
 R O Q R R C A A T F P U A A Y W O
 A W N W N R H T I A W K N E F Z P
 L X M U I G A D J N B E G I A A Y
 E V O Y E J S Q U T A Y O E U E Y
 C L K T E O O N L Y X F I P R N K
 E H C M Y I R I U E O F I G I U I
 T V S G O N B X L I E D O R E K B
 Z D A O Q A A O Y A E S S E U K I
 M A U D Q U L O K H W E E I D X O
 V J Q S M O D Q K Z Z N H S E H M
 Z H S G Z G A C C C I X N P K E G
 E A E R R W Q A T V G G A V A U G
 L P E I J K R X H Y L F A X O L A

			6	4			5
		5		2	8		3 4
							7 2
	6	3	4		7	5	9
	5		9		2		6 8
	8	6	3	5		7	4
5		7					8
4							

IRUNABAR
IRUNGEO BERTSOAREN BILGULINEA



BERTSO BERRIAK 2018-2019 IKASTURTE BERRIARI JARRIAK

Egilea: Aitor Errazkin Vicente
Doinua: Hemen zizurkildar bat

- | | |
|---|---|
| <p>1) Bi mila hemezortzi eta hemeretzi ailegatuko zela bihar edo etzi jakin bagenekien; beraz, gogor eutsi! Ikasturte berri bat, erronkak ez gutxi. Heldu eta alferrik joaten ez utzi.</p> <p>2) Irunen elkarte eta talde asko gara elkarlan, dinamika, ilusio bailara. Denei desio diet, (tamalez hartara hiri honetan nahiko ohituak baikara) trabarik ez bidean, besterik ez bada.</p> <p>3) Soldatapeko ofizio denek, jai eta aste, egunerokoari loturik gaituzte; dirusari truk egin nahi gaituzte "aske". Aldiz, afizioek sarritan, nik uste, herritarrak bizirik mantentzen dituzte.</p> | <p>4) Hargatik, kultur, kirol zein gizarte talde, herriarentzat ari bagara, ni alde! Berdin du nork egiten duen gure galde; sarritan, lan-baldintza txiroenen jabe, hurkoa aberasten ohiturik baikaude.</p> <p>5) Herritik piztu behar denean herria lanean jarraitzea da kurtsio berria. Eginbeharrei hartzen bazaie neurria eta iraila gertatzen ez bada urria udazkenez loratzen da udaberria.</p> <p>6) Dagoeneko martxan ere Irunabar, egitasmo berri zein egitasmo zahar: bertso-eskolak, hainbat saio eta abar... Gurera hurbildu nahi baduzu, bi ohar: ez biharko utzi eta etor zaitez azkar.</p> |
|---|---|

Hirubide DBH2

Kaixo Lucas!

Zer moduz zaude? Lehengo egunean zure amarekin aurkitu nintzen eta injekzio berri bat jarri dizutela esan zidan. Oso harro nago zutaz, badakit zaila izan daitekeela batzuetan, baina jakin ezazu zurekin egongo naizela momentu txar horietan. Nik ez dut inoiz horrelakorik sentitu, baina imajina dezaket zure sufrimendua. Nik ezingo nuke horrelakorik jasan. Horregatik nire laguntza eskaintzen dizut zure lagun eta aholkulari bezala. Nik asko maite zaitut eta ez dut zuk gaizki pasatzerik nahi.

Luze aritu naiz pentsatzen eta konturatu naiz ez dela emozionala bakarrik, fisikoki ere "roilo" bat dela. Ezin dezaket imajinatu nolako aldaketa fisikoak jasan behar izan dituzun zure bizitzan zehar. Baina ez naiz hain sentimentala jarriko, zeren ez baita dena txarra. Momentu on asko dauzkat buruan; parkean ginenean eta mutil batzuk zuregana gerturatu zirenean eta zurekin ligatzen hasi zirenean. Bat batean zuri gauza txarrak esaten hasi ziren eta zuk irribarre handi batekin aurka egin zenien. Ez dut inoiz ahaztuko jarri zuten aurpegia, ez zenien utzi zuri minik egiten eta hori asko miresten dut zuegan. Edozein egoeratan zu zarela eta ez beste inor. Ez zaizula inoiz axola besteek pentsatzen dutena eta bakarrik zuk nahi duzuna egiten duzula. Askok gustatuko litzaidake zu bezalako izatea eta gehiago luzatu gabe, espero dut oso ondo pasatzea Gabonetan. Ea laster elkar ikusteko aukera dugun... Bitartean jaso ezazu besarkada potolo bat nire partetik!!

Nahikari Pérez
Hirubide BHI 3.C



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Unai Arretxe, MotoStudent Lehiaketako parte-hartzailea:

“Klasifikazioan ahalik eta postu altuena lortzea gustatuko litzaiguke”



Urriaren lehen astean zehar ospatuko da V. MotoStudent Lehiaketa. Nazioarteko 17 unibertsitateetako 1500 ikaslek eraikitako motoak proban jartzeko aukera izango da. Unai Arretxe Mekanika ikasle irundarrak Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren taldearekin parte hartuko du lehiaketaren aurtengo edizioan.

Nola izan zenuen proiektu honen berri?

Unibertsitatera sartzerakoan izan nuen proiektu honen berri, ate irekietako jardunaldietara mekanikarekin zerkusia zuen zerbait ikasteko asmoarekin hurbildu nintzen.

Nolako izan da motoaren sorkuntza prozesua?

Prozesua duela urtebete hasi zen, joan den urteko irailean amaiera aldera, eta proiektuak fase desberdinak izan ditu. Hasieran motoaren piezak ordenagailuz diseinatu eta tailerrean makinak erabiltzen ikasi genuen. Ondoren, motoaren fabrikazioan murgildurik hiru edo lau hilabete pasa genituen. Azkenik, motoa probatu eta akatsak konpondu ditugu.

Mekanikako graduari ikasitakoa praktika jartzeko aukera izan duzu?

Bai, ikasitako zenbait gauza erabili ditugu, batez ere, klasean ikasitako kontzeptuak eta materialen ezaugarriak. Hala ere, motoarekin loturiko gauza berriak ere ikasi ditugu.

Zeintzuk dira lehiaketaren antolakuntzak ematen dizkizuen oinarritzko piezak?

Antolakuntzak lehiaketan parte hartuko duten moto guztiek berdin eraman beharreko lau oinarritzko pieza ematen dizkigu: gasolinazko motorra, pneumatikoak, haginak eta balaztatze sistema. Erositako beste bi pieza kenduta, gainontzeko atal guztiak guk sortu ditugu.

“Zirkuituan motoa probatzen ibili garenean asko disfrutatu dut”

Berrikuntza aipagarriarik egin duzue aurtengo mototan?

Ez, aurreko edizioetan motoa ondo ibili izan denez, berrikuntza gutxi egin dizkiogu. Diseinua nahiko antzekoa izan da, hobekuntza gutxi batzuk kenduta.

Zer izan da orain arte gehien disfrutatu duzuna?

Zirkuituan motoa probatzen ibili garenean asko disfrutatu dut. Motoa ondo dabilela eta pilotuek motoarekin sentsazio onak dituztela ikustea oso pozgarria da. Hortaz gain, urte osoan lanean ibili ostean, aurrerapausoak ikustea ere oso polita izan da.

Datorren asteko lasterketan postu on bat lortzea espero duzue?

Klasifikazioan ahalik eta postu altuena lortzea gustatuko litzaiguke. Orain arte unibertsitateak hiru aldiz parte hartu du lehiaketan eta beti 10 lehenengoan artean egotea lortu du. Aurten marka hori errepikatzea espero dugu.

Eskola errefortzua

- Lehen eskuntza, DBH eta batxilergoa
- Azterketetarako prestakuntza

Elkano Kalea 5 (behea), Irun

Ikas Lagun
Akademia

Talde txikiak - arreta pertsonalizatua

Ikasketa gela ikasleentzat
628085960

ikaslagun@ikaslagun.es

www.ikaslagun.es



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

#HIK_IRUN Zuk zer diozu?

Irungo Udaleko Gazteria sailak hiriko gazteen interesak eta kezak ezagutzeko asmoarekin prozesu parte-hartzaile bat jarri du martxan. Gazteen proposamenak bi orduko iraupena izango duten 5 dinamika ezberdinetan bilduko dira. Dinamika horietan gazteek haien eguneroko bizitzan topatzen dituzten arazo, erronka eta beharrak plazaratu beharko dituzte. Gainera, dinamika horietako batean, gazteek espazio publikoaren inguruan egiten duten erabilerari zuzendutako tailer praktikoa izango dute.

Adina: 18 eta 25 urte bitarteko gazteek izango dute programan parte hartzeko aukera.

Helburua: Gazteriari bideraturiko zerbitzu eta politikak herriko errealitatera ahalik eta hoberen egokitze bidea topatzea.

Dinamiken datak: Saiok urriaren 18, 25 eta 30ean eta azaroaren 8 eta 15ean egingo dira.

Izen-ematea: Dinamiketan parte hartu ahal izateko izen-ematea urriaren 15a baino lehen egin beharko da Igazteren webgunean.

@Irun_informa Twitter kontua Euskadiko kontu erabilienetakoen artean

"Alkate barometroak" sortutako azken rankingaren arabera, Euskadiko kontu erabilienetako bat da Irungo Udalaren kontua.

Emaitza horien arabera, Irungo kontua da sare sozial honetan eragin handienetako bat. Euskadi, Nafarroa eta Errioxako kontuen artean 8. postuan kokatzen da kontu irundarra. Gipuzkoako kontuen artean, Irungo kontua dago lehen postuan eta, Euskadi mailan, bosgarrena, Gasteiz, Bilbo, Barakaldo eta Getxoko kontuen atzetik.

Rankinga osatzeko, kontuaren aktibitatea zehazten dute faktoreak hartu dira kontutan: txio eta mezu kopuruak, interakzioak eta sortutako inpaktua. Udalaren kontua 2012 urteko martxotik dago martxan eta udal gaurkotasunarekin loturiko berriak (agenda, ekintzak eta nobedadeak) publikatzen dira bertan.

Egun, kontuak 3.602 jarraitzaile eta 14.5000 txio baino gehiago dauzka. Gainera, duela gutxi Instagram sare sozialean Irun Informaren kontua ireki zen.



Eman izena Behobia-Donosti Gaztean

2018ko azaroaren 11ean ospatuko den Behobia-Donostia Gaztean parte hartzeko aukera izango dute 14 eta 18 urte bitarteko gazteek. 4,4 kilometrotako ibilbidea egingo dute, lasterketa handiaren eszenatokiaren barnean. Goizeko 9:45etan hasiko da lasterketa Herrerako biribilgunean eta Boulevardean kokatuko da helmuga. Herrerara iristeko Euskotren eta Renfek zerbitzu bereziak eskainiko dituzte lasterketaren egunean. Hortaz gain, korrikalariak motxila helmugara eramango dien kontsigna zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute.

Izen-ematea: www.behobia-sansebastian.com webgunean egin beharko da izen-ematea urriaren 30a baino lehen.

Hiru maila ezberdin: Korrikalari gazteak hiru maila ezberdinetan banatuko dira: kadeteak (2004 urtean jaiotak), jubentak (2002-2003 urteen artean jaiotak) eta juniorrak (2000-20001 urteen artean jaiotak).

Dorsal eta kamiseten banaketa: BSS denda lagunetan edo lasterketaren azokan.



urtzi goibergana INMOBILIARIA

Home Staging zer den entzun duzu? Pentsatu etxe batean sartu eta egin berria den kafearen usaina usaintzen duzula eta dekorazio aparta ikusten duzula. Mairidireak dauzkan ohe bat dago bertan etzatera gonbidatzen zaituena eta guztiz hornitutako mahai bat non bertan eseri eta janaria disfrutatzea gonbidatzen zaituena.

Orain imaginatu etxe berean sartu eta hezetasun usaina dagoela, ohea mairidirik gabe dagoela, sukaldea hutsik eta egongela hotz.

Bigarren kasuan, hor bizitzen imajinatzeke esfortzu handia egin beharko zenuke. Lehenengo kasuan, ordea, atetik sartu zaren momentuan hor bizi zaitzkeela ikusi duzu.

Hori da Home Staging, zure etxebizitzaren aurkezpen hoberena egitea.

Ikusi itzazu egin ditugun adibide batzuk:



661 875 785

www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu/

Alkoria / Salmenta / Eraginkortasun Energetikoen Zuzaginak / Arkitektura zerbitzuak / Home Staging zerbitzuak (etxebizitzaren alantzia) Zure etxebizitza ekartzeko badiguzu, Eraginkortasun Energetikoen Zuzaginarekin eta Home Staging zerbitzuak dorekin eduki ditzu (kontsumatu beldintzeki)



Urriak

2-14

AFI Elkartearen Argazki Erakusketa

Non: Laboral Kutxan.
Ordutegia: Astelehene-
 tik larunbatera 18:00eta-
 tik 21:00etara. Igande
 eta jaiegunetan
 11:30etatik 13:30etara.
Prezioa: Sarrera librea.

5

Bechdel zine-klubean "La Escala" pelikula

Zer: Bechdel zine-klub
 zikloaren barnean Del-
 phine eta Muriel Couli-
 nen "La
 Escala" pelikularen erre-
 produkzioa.
Non: CBA Udal Liburu-
 tegian.
Ordua: 19:00etan.
Prezioa: Sarrera librea.
Iraupena: 102 minutu.

Urriaren 7ra arte

2018ko "Adour-Bidasoa" XXVII. Margo lehiaketaren erakusketa

Zer: "Adour-Bidasoa" le-
 hiaketara aurkeztutako
 obren aukeraketa ikusgai
 egongo da.
Non: Amaia Kultur Zen-
 troan.
Ordutegia: Astelehene-
 tik larunbatera 18:00eta-
 tik 21:00etara. Igande
 eta jaiegunetan
 11:30etatik 13:30etara.
Prezioa: Doako sa-
 rreara.

13

Lapurriturrin "Onddo eta perretxikoen mundua ezagutuz"

Zer: Jesus Mari Orcajo
 eta Patxi Lagoren gidari-
 pean egingo den ekint-
 zak bertaratutakoek
 naturaren ezagutza sus-
 pertzea izango du hel-
 buru.
Non: Lapurriturriko infor-
 mazio inguruan bilduko
 dira eta Parke Natura-
 lean zehar gauzatuko da
 ekintza.
Ordutegia: 10:00etatik
 12:00ak arte, gutxi gora-
 behera.
Prezioa: Doan.

13

Bechdel zine-klubean "La Escala" pelikula

Zer: Gabi Losadak zu-
 zendutako Tdiferencia
 taldearen azken antzez-
 lana ikusteko aukera.
Non: Amaia Kultur Zen-
 troan.
Ordua: 20:00etan.
Prezioa: Sarrera oroko-
 raren prezioa 14,60 eu-
 rokoa izango da.
 Langabeek, 14 urtetik
 beherakoek eta Gazte
 Txarleta dutenek 9,40
 euro ordainduko dituzte.
Iraupena: 80 minutu.
Hizkuntza: Gaztele-
 raz.
**Sarrerak eskurat-
 zeko:** Internet bidez, tu-
 rismo bulegoan edo
 Amaia Kultur Zentroko
 leihatilan lortu daitezke.

13-14

"Los muñecos de la tarta" ezkontza-azoka

Zer: Ficoban antolatuko
 den ezkontza-azokaren
 III. edizioa.
Non: Ficoban.
Ordutegia: 11:00etatik
 20:00tara.
Prezioa: Sarrera librea.
Oharra: Pakina doane-
 koa izango da.

Denborapasen emaitzak

B	J	Y	M	E	X	U	G	U	S	F	R	L	C	M		
O	U	R	F	I	U	Y	C	G	L	M	B	E	E	U	T	K
V	M	L	A	P	N	E	E	D	T	E	O	I	P	B	Z	C
D	P	R	A	R	Y	S	E	E	K	L	U	U	O	E	D	B
R	O	O	R	R	C	A	A	T	F	P	U	A	A	Y	W	O
A	W	N	W	N	R	H	T	I	A	W	K	N	E	F	Z	P
L	X	M	U	I	G	A	D	I	N	E	E	G	T	A	Y	
E	Y	O	E	J	S	I	Q	U	T	A	Y	O	E	U	E	Y
C	L	K	T	E	O	N	L	Y	X	F	I	P	R	N	K	
E	H	C	M	Y	I	R	I	U	E	O	F	I	O	I	U	I
T	V	S	G	O	N	B	X	L	I	E	D	O	R	E	K	B
Z	D	A	O	Q	A	A	D	Y	A	E	S	S	E	U	K	I
M	A	U	D	Q	U	L	O	K	H	W	E	E	I	D	X	O
V	J	Q	S	M	O	D	O	K	Z	Z	N	R	S	E	H	M
Z	H	S	O	Z	Q	A	C	C	C	I	X	N	P	K	E	G
E	A	E	R	R	W	Q	A	T	V	G	G	A	V	A	U	G
L	P	E	I	J	K	R	X	H	Y	L	F	A	X	O	L	A

1	7	2	8	4	3	8	9	5
6	8	5	7	2	8	1	3	4
3	4	8	1	8	5	0	7	2
9	2	4	5	8	6	3	1	7
8	6	3	4	1	7	5	2	9
7	5	1	8	3	2	4	6	8
2	8	8	3	5	9	7	4	1
5	1	7	2	6	4	9	8	3
4	3	9	8	7	1	2	5	6

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
 (atzeko aldea)
 www.kopiar.net
 kopiar@kopiar.net
 943 63 93 01



III EZKONTZA AZOKA

URRIAK 13-14

www.losmunecosdelatarta.com

ALDABALDETRERU



REGUZZKIboda

Floristería Dana



DIEZ S.A. Autocares

GBEVENTOS

Joyería LUCCA Relojería

MARRIED novias

Huellas ZAPATERIA



Son&Djs Sonido y Deejeys profesionales

laguntzaileak:



Reflejo Pilomotor Experiencia Automóviles

